KAKTUS PROIEKTOA

Egiako bizitza komunitarioa berpiztea helburu.

Auzo komunitatea indar dezagun, jar diezaiogun Egian muga Donostiako turistifikazio eta nortasun galerari, sor dezagun gure herri kultura.

Burujabetzaren inguruko proposamen kolektiboa.

Burujabetza ekonomiko, sozial, elikadura-burujabetza, energetikoa, kooperatiba.

Egiako Plaza Berri biziberritzeko egitasmoa:

Historikoki auzoko bihotza izan dena berreskuratu eta espazio publiko komunitarioa bihur dezagun.

TESTUINGURUA

Egun Egian honako egoera eta arazo hauek ditugu:

- Turistifikazio basatia.
- Alokairuaren boom-a.
- Belaunaldi berriak beste bizileku batzuk bilatu beharrean.
- Denda txikiak gainbehera datoz.
- Apostu etxeak biderkatzen.
- Soziologia aldaketa; emigranteen egoera prekarioa.
- Auzo izaera galera.
- Indibidualismoa nabarmen indartu da.
- Adinekoen zaintza behar gorria da.

Donostiaren garapen ekonomiko eta sozialak aldaketa nabarmenak izan ditu azken hamarkadan. Aurretik zerrendatutako arazoak ondorio ekarri ditu honek.

Egia, langile auzo grisa izatetik hiriaren erdigunean kokatu duten auzo izatera igaro da. Etxebizitzaren garestitzea izutzekoa da. Erosketa ahalmena gutxi batzuen esku dago egun eta alokairu espekulazioak ere gora egin du gazte eta familia berriak tokiz aldatzera behartzeaz gainera, tradizio luzeko merkataritza eta ostalaritza zerbitzuak ere tantaka desagertze bidean jarri dituelarik.

ZER NAHI DUGU?

Egoera honen aurrean ezinbestekoa zaigu kohesio sozialari eustea, berregitea, egunero itotzen gaituzten arazo indibidualei erantzun kolektiboak ematea.

Espekulazioari, prekarietateari, patriarkatuari, kapazitismoari, arrazismoari eta indibidualizazioari auzoko eragile eta norbanakoen artikulazioaren bidez erantzungo dion espazio bat eraikitzea, alegia.

Egiak badu herri mugimendu aberatsa, kultura, politika, ingurumena, euskara, aisialdia, kirola, jaiak... hainbat arlotan lanean ari diren 30 bat eragile ditu auzoak, gune propio eta autogestionatua eskatzen duena.

Zer nahi dugu? Batetik Kaktus tabernaren lokala erostea eta bestetik, Komite Internazionalistena den Txokoare erabilerarekin batera, komunitatearen zerbitzura ariko den proiektu autogestionatua garatzea Egiako Plaza Berrin.

Proiektu honek Egiako biztanleria auzoaren eraldaketa eta kudeaketaren oinarri eta protagonista bihurtzea du helburu:

- **Auzoko eragileen eta proiektu anitzen elkar-lekua izanez.**
- **Auzo-mailako burujabetza prozesuak abiarazteko asmoz.**
- **Eredu ekonomiko komunitario berri batean oinarrituz.**
- **Plaza berriko espazioa biziberrituz.**

PROIEKTU-ZERBITZUAK

Ekintzaileek, auzotarrek edota eragileek antolatutako proiektu-zerbitzuak:

- Bilgunea; Plazako espazioarekin armonian.
- Burujabetza proiektutarako espazioa: Elikadura, kontsumo taldeen banatze espazio, topaleku, Errigorako banatzaile, burujabetza energetiko, finantziero edota teknologikoaren sustatzaile.
- Zaintza eredu berriak entseatzeko espazioa.
- Nortasun interkultural berri bat eraikitzeko espazioa edukitzea (euskara ardatz)
- Argitaletxeen banatzaile.
- Kultur agenda. Kafe tertulia, ikuskizun.
- Intelektualen espazio. Hitzaldi, tertulia, saio.
- Kale antzerkia.
- Bertsozaleen gune.
- Musika zirkuitoko erreferente. Disko aurkezpen, elkarrizketa. Grabazio estudioaren osagarri.
- Donostialdeko kultur zirkuitoan zerbitzuak eskaini. Ostalaritza, eta komunikazio espazio bezala.

Tradizio luzeko espazioa izanik, urteetan pilatutako harreman sareari etekina atera, biziberritu. Auzoa, Donostia, Donostialdea eta tokiaren berezitasunak dakartzan erreferentzia eta kultozko zirkuito musikal kulturetari egokitutakoak.

BESTE HAINBAT ADIBIDE

Katakrak. Iruñea: https://katakrak.net/
Erein da jan. Bergara: http://www.ereindajan.eus/denda/bergara/
Elika. Oiartzun.
https://batura.eus/gunea/euskal-herria/gipuzkoa/oiartzun/elika-kooperatiba/
Kafe Antzokiak. http://www.doka.eus/
Azpeitiko San Agustin: https://www.kulturaz.eus/agenda

NOLA NAHI DUGU?

- **Herri-Kultur proiektu bat garatzea ELKARTE** baten inguruan, burujabetzaren ildoan eta kultur ekimenetan sakonduz, fisikoki, egun Txoko Internazionalistarena den lokaletan.

- Kaktusen hostalaritza zerbitzuarekin aurrera jarraitzea eta bere ustiaketa **"Lan Elkarteko Kooperatiba" izaera izango duen egituraketa batena izatea.**

- **Kooperatibako bazkide langileak edo ekintzaileak:** Jarduera ekonomikoa aurrera eramango duten bizpahiru kide izatea.

- Ostalaritza zerbitzuaz gain, **komunitatearen zerbitzura egongo den proiektuarekin harreman zuzena** izango duen kooperatiba izatea, barne araudi bidez.

- **Elkartearen zeregina:** Bazkide Langileei laguntzea lan talde desberdinetan parte hartzen, proiektuak exekutatzen, lan bolondresa egiten (legalki, koop aktibitatetik kanpo egin daitezkeen lanak bakarrik egin daitezke soldatarik jaso gabe).
  Zerbitzu profesionala (kontabilitatea, dinamizazioa, komunikazioa, sare sozialak)

ANTOLAKETA

Jabetza	Finantziazioa	Ustiaketa	Kultur-Herri proiektua
ELKARTE BAT - Proiektuaren “aurpegia” izango da. - Aurreneko helburua: Diru bilketa.	Pertsonen mailegu edo aportazioa: **(100 lagun 1.500€)** Koop 57	Kooperatiba Elkarteari alokairua zesio moduan (1.300€ Koskok Harditi. Erosketa eskubidea?)	ELKARTEA - Burujabetzen inguruko ekimenak - Ekimen Kulturalak
		Koopfabrika-k: *Formazioa *Bidelaguntza	Igeldoko eredua San Agustin Azpeitia Katakrak

EGITEKOAK

2. Talde sustatzailea osatuko duten pertsonak. Elkartearen Estatutuak. Disoluzio kasuan nola egingo den.	**3. Diru bilketa kanpaina.** Babesle-erosleak bilatzea. Diru ekarpenaren kontratua. Bilketaren aurreikuspenak .	**1. Ekintzaileak** Jarduera ekonomikoa zehaztea. -Bideragarritasun plana.	**4.Jarduera ekonomikoarekin elkarteak izango duen lotura zehaztea.**

AURRERA edo ATZERA EGITEKO EPEA:

URTARRILAREN 9a, 19:00etan TXOKON